


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2003KO IRAILA

Euskal AEko eraikuntzako kostuek bere horretan iraun zuten (% 0,0) 2003ko irailean

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko irailekoa, 2002ko irailekoarekin alderatuta) % 2,3koa izan da.

2003ko irailean, bere horretan mantendu zen Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea (% 0,0), aurreko hilaren aldean, eta, horrenbestez, hil horretako urte arteko tasa % 2,3koa da, Eustatek eskainitako datuen arabera. Urteko lehenengo bederatzi hilabeteko tasak, aurreko abenduaren gainean, igoera berdina izan du: % 2,3koa, alegia.

Urte arteko aldakuntzaren tasak, 1995-2003



(*)Iraileko urte artekoa da adierazitako gehikuntza.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2003ko iraila, 2002ko irailaren gainean), lan-eskuaren kostua % 5,8 handitu da; lehengaien kostuak, berriz, % 0,1 txikitu dira.

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreek ez dute zeinu bereko bilakaera izan euren guztizko kostuetan: *eraikuntzako* kostuak % 0,1 goratu dira aurreko hilaren aldean, eta *obra zibilekoak*, oster, % 0,2 beheratu dira joan den abuztuaren aldean. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratzuz gero, ikusiko dugu, hazkundeari dagokionez, badela bien artean aldetxo bat: *eraikuntzako* kostuak % 2,2 hazi dira, eta *obra zibilekoak*, aldiz, % 2,6.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko irailean, hauek izan dira inflazio-tasarik handienekoak: *asfaltozko produktuak* (% 5,4), *metalezko hodiak* (% 1,0), *karea, igeltsua eta eskaiola* (% 1,0), *makineriarako osagarriak* (% 0,6), *olioak eta koipeak*

(% 0,5) eta *pinturak eta bernizak* (% 0,3). Aitzitik, hileko batez besteko prezioetan murrizketak izan dituzte *petroliotik eratorriak* (% -4,7), *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (% -2,1), *leherkariak eta gasak* (% -0,8) eta *ateratze-agregatuak* (% -0,3) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA		2003KO IRAILA		
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	122,2	0,0	2,3	2,3
ERAIKINAK	122,4	0,1	2,2	2,2
OBRA ZIBILA	121,6	-0,2	2,6	2,6
LEHENGAIEN KOSTUA	113,8	0,0	-0,1	-0,1
ERAIKINAK	114,1	0,1	-0,3	-0,3
OBRA ZIBILA	113,0	-0,3	0,3	0,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	135,9	0,0	5,8	5,8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: 05-945 017 534. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es